

INSTAGRAM-EKO (IG) @HIRUGAZTE KONTUA ABIATZEAZ BATERAKO ZOZKETAREN

OINARRIAK

Zozketa hau Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarten Federazioa-Hirukidek (aurrerantzean, HIRUKIDE) antolatuta dago, zeinaren egoitza soziala Sofia Erreginaren hiribidea 112, behea (Gasteiz) eta IFK G-01285899 diren, eta zozketa El Corte Inglés-en eta Forum Sport-en parte-hartzeari eta laguntzari esker antolatu duen.

1. Zozketaren xedea eta saria.

HIRUGAZTE Hirukideren ekintza-ildo berri gisa inauguratzeko eta haren plazaratzea sustatzeko zein sendotzeko asmoz, HIRUKIDEk zozketa bat antolatu du Instagram sare sozialaren bidez (aurrerantzean, IG), @hirugazte kontuarekin, eta bi sari banatuko ditu. Zozketa Hirukide Araba, Hirukide Bizkaia edo Hirukide Gipuzkoako familia bazkideetako 15 eta 25 urte bitarteko gazteentzat da (aurrerantzean, Hirugazteak), eta bi opari-txartel daude jokoan:

- **1. saria:** *El Corte Inglés*-en 150 €-ko Opari-txartela, online dendan nahiz fisikoan erabiltzeko.
- **2. saria:** *Forum Sport*-en 150 €-ko Opari-txartela, denda fisikoan erabiltzeko.

2. Parte-hartzaileak

Hirugazteek parte hartu ahal izateko, beren familiek bazkide-kuota ordainduta izan beharko dute.

3. Parte hartzeko baldintzak

Zozketako hautagai izateko, Hirugazteek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) IGn, @hirugazte kontuaren jarraitzaile izan.
- b) Oinarri hauen xede den zozketaren argitalpenean "Atsegin dut" sakatu.
- c) Neba-arreba bat eta era berean kide ugariko familiakoa den lagun bat aipatu.
*Adibidez: @mertxe @juan
- d) Inprimakia bete: izen-abizenak, e-posta, IGko kontua, telefono-zenbakia eta bazkide-zenbakia (azken biak ez dira nahitaezkoak), Hirukideko kide direla egiaztatzeko eta zozketa irabazi dutela jakinarazteko.

4. Zozketaren mekanika eta jakinarazpena irabazleei

Zozketa parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten Hirugazteen artean egingo da. Bi sari banatuko direnez, lehen sariaren irabazleak ezingo du bigarrena ere irabazi.

Era berean, zozketaren posta storie-n bitartez partekatu duten erabiltzaileek irabazteko aukera gehiago izango dituzte, bi aldiz sartuko baitugu haien erabiltzaile-izena.

Nola egingo da zozketa?

HIRUKIDEk parte hartzen duten erabiltzaile guztien izenak jasoko ditu IGko @hirugazte kontuan argitaratutako postetik. Ondoren, parte hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela eta irabazle izateko hautagai izan daitezkeela egiaztatutakoan, zozketa egingo du.

Irabazlea aukeratzeko, sortea2 plataforma erabiliko da. Mekanika hauxe izango da:

- LEHENIK: IGko kontu hautagarri guztien artean, plataformak lehen irabazlea aukeratuko du, zeinak El Corte Inglés-en Opari-txartela irabaziko duen.
- BIGARRENIK: kontu hautagarrien zerrendatik 1. sariaren irabazlearen izena atera ondoren, plataformak beste irabazle bat aukeratuko du, Forum Sport-en Opari-txartela eskuratuko duena.
- HIRUGARRENIK: azkenik, kontu hautagarrien zerrendatik printzipioz irabazle izan diren bi kontu horiek kendu ostean, plataformak LAU erabiltzaile gehiago aukeratuko ditu, erreserba gisa; hots, aurreneko biek harremanetan jartzea ezinezkoa baldin bada, lau horiengana joko da. Hala gertatuz gero, sortea2 plataformak erreserbako pertsona horiekin harremanetan jartzeko hurrenkeraren arabera ezarriko du aukeratutako erabiltzaileen zerrenda, baldin eta bost egun balioduneko epean ezin izan bada hasieran saritutakoekin hitz egin.

Jakinarazpena irabazleei:

Irabazleen berri @hirugazte kontuko *story*-en bidez emango da, eta irabazleei DMren bitartez jakinaraziko zaie. Baliteke Whatsappez jartzea harremanetan haiekin.

- **Sarietako baten irabazleak** bost egun balioduneko epean erantzun ezean, oparia aipatu erreserba-taldeko lehen pertsonari emango zaio, eta horrek hiru egun balioduneko epea izango du jakinarazpenari erantzuteko; berdin jokatuko da erreserba-taldeko kideak amaitu arte, bakoitzak 3 egun balioduneko epe bera izanik. Jakinarazpenari ez balio horietako inork erantzungo, zozketa irabazlerik gabe geratuko litzateke.
- **Irabazle biek erantzuten ez badute**, opariak erreserba-zerrendako 1. eta 2. kideei emango zaizkie, hurrenez hurren, eta 3 egun balioduneko epea izango dute jakinarazpenari erantzuteko; berdin jokatuko da erreserba-zerrendako kideak amaitu arte, bakoitzak 3 egun balioduneko epe bera izanik. Jakinarazpenari ez balio horietako inork erantzungo, zozketa irabazlerik gabe geratuko litzateke.

5. **Zozketaren faseen datak:**

- Parte hartzeko epemuga: 2022-06-24
- Irabazleak iragartzeko data: 2022-06-28

6. **Zerga-eragina:**

Sariak indarrean dagoen zerga-legeriaren mende daudenez, aitortuak, atxikiak eta likidatuak izan beharko dira, legeak ezarritako baldintzen arabera. Horretarako, Hirugazte irabazleek dagokion ziurtagiria eskatu ahal izango diote HIRUKIDERI.

7. **Datu pertsonalak eta irudia erabiltzeko eskubideak.**

Zozketaren emaitza onartzeaz batera, irabazleak, printzipioz, irabazi duen saria erakusteko argazia bidaltzeko konpromisoa hartuko du, baita HIRUKIDERI Hirugazte bidez bere irudiak erabiltzeko lagapen-baimena helaraztekoa ere, erakundeak beraren komunikazio-kanaletan zabal ditzan.

8. **Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa**

Arduraduna eta harremanetarako datuak	HIRUKIDE, Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarten Federazioa. Sofia Erreginaren hiribidea, 112. 01015 Gasteiz. 945 25 36 02 / 688 72 89 31
Bildutako datuak, interes legitimoa eta gordetzeko epea	<u>Parte-hartzaileenak:</u> (i) identifikatzeko eta harremanetarako datuak; (ii) prozesu informatikoen ondoriozko datuak. HIRUKIDeko Bazkide-profilari erantsitako datuak, bai zozketa hau bai sari-banaketa kudeatzeko eta elkartearen zerbitzuak dagozkien baldintzen arabera ematen jarraitzeko. <u>Irabazleenak:</u> (i) identifikatzeko datuak, irudiarekin loturikoak eta harremanetan jartzekoak; (ii) prozesu informatikoen ondoriozko datuak. HIRUKIDeko Bazkide-profilari erantsitako datuak, bai zozketa hau bai sari-banaketa kudeatzeko eta elkartearen zerbitzuak dagozkien baldintzen arabera ematen jarraitzeko.
Helburua	Zozketa hau eta sari-banaketa kudeatu.
Eskubideak	Norberaren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, erabiltzeko baimena baliogabetzeko, haien erabilerari aurka egiteko, erabilera mugatzeko eta/edo beste norabait eramateko eskatzeko eskubideak, hirugazte@hirukide.com helbidera idatziz.